## colaboraciones

# *Hala eta guztiz ere, «Geurea Ikurriña»*

Herri Batasunak, berari dagokion praktika politikoari eutsiz, ez du etsi, eta ez du etsiko, proiektu politiko abertzale baten alde gauden guztien lekukoa den ikurriña Euskadiko hiriburu eta herriko udal guztietan bakarrik jarri arte, bandera espainolaren presentzia bait da gure hiri eta herrietako festetan ematen den elementu distortsionante eta erasotzaile bakarra, eta ez ikurriña.

Ikurriñaren aldeko praktika honi, transizio hasieratik eutsi zion Herri Batasunak. Urte haietan, PSOE Estatu espainolean oposizio alderdia zenez, onartu egin zuen udaletan edo edozein instituzio publikotan ikurriña bandera espainolaren presentziarik gabe jartzea, baina Madrilgo Gobernura iritsi eta Estatuko botereen gestore bilakatu zenetik, interes anti-abertzale horien zerbitzuan lanean hasi zen itsu-itsuan. Euskal Herriaren aurka frente guztiak indartuz, eta ikurriñaren alorrean, euskal nazioaren ikurrari bandera espainolaren presentzia inposatuz.

Hala ere, Euskal Herrian zehar, hainbat eta hainbat herritan, urtero gertatu ohi den bezalaxe, Herri Batasunaren iniziatibaz ikurriña udaletxe askotan festak aintzindatu ditu. PNV eta EAko zinegotzien onespenarekin toki batzutan, hauek beren pentsamenduari eutsi bait diote, gure herriko etsaien presio politikoaren aurrean amore eman beharrean.

**Ikurriñaren manifestaldia PSOEk debekatu**

Donostian, bihar arratsaldez Herri Batasunak burutu nahi zuen ikurriñaren aldeko manifestaldia debekatu du Estatu espainolaren ordezkari zuzena den Goñi Tirapu gobernadore zibilak. PSOEk Euskal Herriaren aurka daraman borroka global eta sistematikoaren agerpen berri bat eginaz. Eraso honek ezaugarri ezberdinak ditu, PSOEK "gehiengoa" duen hainbat udaletan PNV eta EAko zinegotziak presionatuz ikurriña udalean ez jartzea edo bandera espainolaren presentzia inposatzea lortu bait du. Beste batzutan, "gehiengo"rik ez duenean, Guardia Zibila bidali du, herriko ordezkariek ikurriña jartzeko hartu duten erabakia indarrez deuseztatzeko, Etxarri Aranazen gertatu den moduan. Baina Guardia Zibila indarrez hiriburu batetara bidaltzea eskandalagarriegia denez, Gobernu Zibila erabili du lan berbera egiteko, Donostian gertatu den bezalaxe.

Eta ez da harritzekoa PSOEren ikurriñaren aurkako eraso hau, gure nazio lekuko honek zentzu politiko sakona bait du, eta hori jakin badakite. Ikurriña, gure nazio identitatearen lekukoa izateaz gain, euskaldunen batasunaren eta subiranotasunaren adierazlea da, eta horrexegatik erasotzen du gure etsaiak. Ildo horretan, gure nazio ikurra udaletan egon dadin urtero burutzen dugun borroka frivolizatzea edo tribializatzea, jokabide farsante eta ziniko batez jabetzea dela pentsatzen dugu. Planteamendu hauen atzean, Euskal Herriko subiranotasunaren aurka daudela esateak ematen dien lotsa eta beldurra izkutatzen da. Subiranotasunaren aurka azaldu beharrean, ikurriñaren aurka azaltzen dira, eta hainbat tokitan ikurriñaren aurka azaldu beharrean, bandera espainolaren presentzia inposatzen dute.

Euskal Herriaren aurkako borrokan, bide guztiak egokiak dira PSOErentzat, eta beraiek internazionalki defendatzen duten "demokrazia" eta "talante demokratikoa" nolakoa den isladatzen du ikurriñaren inguruan Goñi Tirapuk hartutako erabakiak. Euskal Herrian manifestatzeko eskubidea, gutxi batzuren pribilegioa bihurtu dute. Hau da, Euskal Herriko indar politikoek desagertzea eskatu duten gobernadore zibilaren esku dago, teorian guztien eskubide demokratikoa den manifestatzeko aukera era arbitrario batez mugatzea, beti ere gure kaltean, Herri Batasunak istiluak baztertzeko asmotan ikurriñaren aldeko manifestaldirako deia zabaldu zuenean, hain zuzen.

**Justizi Epaimahai Gorenaren erabakia**

Komunitate Autonomoko Justizi Epaimahai Gorenak, Herri Batasunak aurkeztutako errekurtsoa "onartezin"tzat jo du, epeetatik kanpo aurkeztu dela argudiatuz, erabaki zalantzagarria ikuspundu juridikotik. Entitate juridikoak sententzian azaladu duenez, ez du Herri Batasunak aurkeztutako errekurtsoa sakontasunez aztertu nahi izan, sortu berria den Justizi Epaimahai Gorenaren seriotasun falta eta irresponsabilitate politikoa isladatuz, ez bait da zuhurra "forma" arazoengatik horrelako mamia duen gaia alde batetara uztea, manifestatzea den oinarrizko eskubidea zapuztuz; jokuan dagoena sistema demokratikoaren zutabe nagusienetariko da.

Entitate juridiko honek errekurtsoa onartu ez badu, manifestapena debekatzeak zenzutzurik ez duelako izan da, debekurako argudioak izan bazituen, ez bait zuen tamaina horretako argudio "tenporalik" erabiliko. Komunitate Autonomoko Justizi Epamahi Gorenak hartu duen erabakia, PSOEko gobernadore zibilek, eta Goñi Tirapuk bereziki hartutako erabaki agresibo eta persekutorioarekin kolaboratzea izan da. Kasu honetan, pisu haundiagoa izan du Justizi Epamahai Gorenarengan gobernadore zibilen edo PSOEren presio politikoak, oinarrizko eskubideen defentsak baino.

**Ikurriñaren aldeko ekitaldia Donostian**

Guzti hau kontutan izanik, Herri Batasunak 14an burutu nahi zuen manifestaldia bertan behera uztea eta Konstituzio Plazan ikurriñaren aldeko ekintza antolatzea erabaki du arratsaldeko 20.30etan, txalaparta, Agurra eta Mahai Nazionaleko partaide baten interbentzioarekin.

Ildo horretan, Herri Batasunak, festa eta errebindikapen politiko mailan jaietan ematen den osagarritasunari eusti dio, inolako dejazio politikorik egin gabe, jaiak eta borroka festetan elkartzea posible dela berriz erakusteko asmoz, PSOEk erakusti nahi duena guztiz kontrakoa denean. PSOEk osagarritasun forma hori hautsi nahi du, festak "politizatu" edo "hautsi" nahi ditugula esanez, eta horretan saiatuko da Goñi Tirapuren laguntza preziatuarekin.

Guri berriz, gure lehentasunen aurrean amore ematen ez dugula erakustea dagokigu, printzipio politikoei eutsiz, eta Konstituzio Plazan ikurriñari eskeiniko zaion omenaldian parte hartuz.

Donostiako Herri Batasuna

## zelatan

# *Deportatuen patu hitsa*

Tximistaren azkarrean hedatu da berri lazgarria: Juan Ramon Aranburu, ordiziar abertzale fina, Cabo Verden hil da. Beste euskal deportatu gazte bat atzerrialde urrunetan itzalia. Garikotx gaxtea ez da berriz bere aitarekin jostatuko; eta Bixen Muxika emazte saiatuak, bakarrik beharko du bere etorkizuna birmoldatu. Giro arrotzak makaldurik, azkenean Juanra ere deportazio gupidagabean hila.

«Aquí no pasa nada. Algunos siguen blasfemando. Todavía no creen en la legalidad democrática. Todavía toman en serio el sueño rojo-separatista. ¡A por ellos! ¡Liquidación como sea!»

Juanrak ez zuen horretan sinesten, eta ETAn sartu zen. Eta horixe da español on batek (eta vasco-navarro on batek, beraz) egin behar ez duena. «Sano regionalismo, filfa autonómica, folklore norteño: ¿por qué no? Pero ¿separatismo consecuente?»... Eta bizia arriskatzeko moduan hartua... Hori falta genuke!

Nazio Askapenerako Mogimenduak, normalean, borroka harmatuaren alorrean burutu ohi dira. Borroka mota hau agertzea eta sustraitzea, guztiz normala da. Modako hitza *erabiltzekotan*, ETAk «homologatu» du abertzaletasuna; eta «bloque democrático» delakoak, «deshomologatu» nahi du. Aski da Irlanda, Palestina eta Kanakia gogoratzea.

Berez-lerroa, beraz, ez da gaur «borroka harmatua, bai ala ez»; «Madrileri bai, Madrileri ez» baizik. «Madrileri bai» esatean, «legetasuna» defendatzen duten indar harmatuei esaten baitzaie «bai», eta ez beste inori.

Juanra gizajoak, eta deportatu guztiek, eta deportatuen sakrifizio gogorra aintzakotzat hartzen duten guztiek, ongi ulertu dute hori.

Horregtik, ikurrina beren burua mozorrotzeko erabiltzen duten guztiek, Juanraren heriotzari ez-ikusia egingo diote.

«Quisling» guztiak baitira anaia bizkiak.

TXILLARDEGI

## hemeroteca

### *Decisión salomónica*

*(I. Artaiz en "Navarra Hoy", 12-8-89)*

Ayer se supo que el Tribunal Superior de Justicia de Euskadi, presidido por el magistrado Juan Bautista Pardo, ha decidido rechazar el recurso interpuesto por HB contra la prohibición gubernativa de la manifestación convocada para el día 14 con el lema "Geurea ikurriña" (lo nuestro, la ikurriña).

Recuérdese que dicha manifestación coincidiría, en el tiempo y en el espacio, ccon el acto cívico-religioso de la Salve, ceremonia que ha sido calificada por el portavoz de HB en el Ayuntamiento donostiarra de "residuo del nacional-catolicismo". Si consideramos por otra parte que las anteriores convocatorias de manifestaciones similares han acabado como el rosario de la aurora y que existe el deseo de un pequeño pero activo grupo de cciudadanos de incluir la lapidación ritual de las fuerzas vivas como un número festivo más, parece plenamente justificada la decisión del tribunal.

A pesar de todo cabe plantear una seria objeción a ese acuerdo judicial. En la fundamentación, los magistrados invocan la ley reguladora del derecho de reunión de 25-7-83, que prevé unn plazo improrrogable de 48 horas para la presentación de recursos y, consecuentemente, no aceptan el de HB porque incumplían este requisito formal. No está mal la triquiñuela para salir del paso, pero no se *hinca el diente a la cuestión* de fondo: el ejercicio de la libertad de reunión o de cualquier otra libertad, ¿está o no limitado por el respeto a la libertad de los demás? (...)

### *El helicóptero*

*("El País, 12-8-89)*

Lo inverosímil no existe. Hace unos 25 años, a Morris West se le ocurrió hilar una trama novelesca centrada en la —entonces— *increíble hipótesis de que el Sínodo* eligiera un papa de más allá del telón de acero. Y 20 años después aparece Wojtyla. Y hasta el más fantasioso lector hubiera considerado excesivo que a West se le hubiera ocurrido, por ejemplo, que un cura integrista español intentase acuchillar al santo padre polaco en Fátima. Pero ocurrió. (...)

Ya sólo faltaba que un paseante que recogía yerbas en el campo derribase de una pedrada a un poderoso helicóptero del ejército. *Faltaba*, porque eso también ha ocurrido. Es muy lamentable que así haya sido, tanto por el daño (afortunadamente, no grave) sufrido por sus ocupantes como por las pérdidas materiales que supone. Pero ¿se nos permitirá expresar en este caluroso fin de semana nuestra íntima alegría ante esta demostración de la vulnerabilidad de la omnipotente tecnología punta y la nueva confirmación experimental de que nada es totalmente inverosímil?

### *Violencias veraniegas*

*("Diario 16", 12-8-89)*

Este mes de agosto, quizá por la intensidad exorbitante de la canícula, está resultando conflictivo, pendenciero, enconado y poco comedido. En el pueblo pontevedrés de Cangas del Morrazo se ha producido una nueva e inclasificable agresión a un concejal, como consecuencia de las ya conocidas discrepancias políticas que zarandean al pueblo, y que se acumula a la ya poco edificante historia de violencia y desentendimiento que allá se viene escenificando. En los alrededores de Madrid, un ciudadano airado con ciertos helicópteros militares que "espantan a las vacas" la emprende a pedradas contra las aeronaves, derribando a una de ellas, con lo que coloca a nuestro Ejército, *y al ministro* Serra muy en particular, ante un colosal ridículo. En Anchuras, los vecinos indignados, con más cólera de la que sería imaginable, parecen dispuestos a imponer sus legítimas tesis por cualquier medio. Y para terminar esta convulsiva relación de hechos, toda la Prensa difundía la tragicómica noticia de que un concejal socialista del pueblo granadino de Peza ha mordido violentamente en la mejilla a José Lechuga, hermano del alcalde de la localidad, por una disputa política... Como se ve, y aunque la sangre no termina de llegar afortunadamente al río, las querellas se multiplican, y nuestra Prensa veraniega, otrora dedicada a las serpientes estacionales, disfruta en esta ocasión del picante manjar de estos incidentes, que al menos rompen la monotonía agosteña, en que los más están descansando a pleno sol, en tanto los menos se enzarzan en disputas anacrónicas. (...)




*"Deia"*